

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure jatetxea adin guztietako jendea etor dadin prestatuta egon arren, bezero mota desberdinak identifikatu ditugu, eta egindako merkatu ikerketaren arabera **horrela taldekatu ditugu**:

- **Familiak**: 12 urtetik beherako umeek, normalean beraien gurasoekin joaten dira etxetik kanpo bazkaltzera. Horregatik, gure jatetxea, adin tarte horretako umeek eroso egoteko moldatu



dugu. Alde batetik, umeentzako jolastoki bat eraiki dugu jatetxearen barruan. Bazkaltzen amaitu ostean, hurrek jolastoki horretara joan daiteke jolastera, gurasoek, bazkari atsegín batez gozatzen duten bitartean. Bestalde, gure menuan, umeentzako menu txiki bat gehitu dugu, txikienek ere janari onaz gozatzeko aukera izan dezaten.

- **Nerabeak** (12-25 urte bitartekoak): Nerabeek gure bezero segmentu nagusia dira haibat arrazoiengatik: nerabeek janaria merkea bilatzen dute, *fast food* janaria asko gustuko dute eta azkartasuna bilatzen dute. Hori dela eta, ezaugarri guzti horiek konbinatzen saiatu gara gure jatetxean.



- **25-40 urte bitartekoak** ere joan ohi dira, baina ez nerabeak bezainbeste. Lan eguna bukatu eta gero joaten dira edo atsedenaldietan, janaria azkarra eta goxoa delako.
- **40 urtetik gorakoak** normalean jatetxe garestiagoetara joaten direnez, esan dezakegu 40 urtetik berako jendea izango dela segmentu potentzial nagusia.

Beraz, bezero segmentu nagusienak, bikote gazteak, nerabe taldeak eta seme-alabak dituzten familiak izango dira. Gure jatetxea aproposa izango da arintasuna, erosotasuna, kalitatea eta prezio eskuragarriak bilatzen dituztenentzako. Ondo jan nahi ezker eta aldi berean prezio merkeak bilatu ezker, jatetxe hau leku egokiena izango da.

Negozioa, **Bilboko Gran Via kalean** kokatuko dugu, leku estrategiko bat delako. Leku horri esker, Gran Vian erosketetan ari diren pertsonak eta eskualdeko negozioetako langileak, zerbait azkar eta goxo jateko aukera izango dute gure jatetxeari esker. Pertsona horietaz gain, Bilboko biztanleentzako eta metropolitanoako jendearentzat bideratuta dago gure jatetxe teknologikoa.



Gran Vía de Don Diego López de Haro (Bilbo - Espainia)